

ESP.: 2018/AI/03/096

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### 2018ko martxoaren 22ko ohiko bilkura

#### BERTARATUTAKOAK

##### ALKATE-UDALBURUA

M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

##### ZINEGOTZIAK

###### Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA  
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO  
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA  
IKER AGIRRE BARTZENA  
IDOIA BLASCO CUEVA  
XABIER LOSANTOS OMAR  
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA  
DIONI ANDRES BLANCO

###### Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS  
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN  
M<sup>a</sup> DOLORES LOZANO MUÑOZ  
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ

###### EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA  
ARITZ TELLITU ZABALA

###### Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES  
ENARA DIEZ OYARZUN  
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

###### Leioako Alderdi Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ  
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

##### EZ DA BERTARATU / EZ DA BERTARATU, ARRAZOIA AZALDUTA:

NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ

##### EUSKARAKO ITZULTZAILEA

XABIER PAYÁ jn.

##### KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

##### IDAZKARITZA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

Leioako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita bian, arratsaldeko zazpiak eta lau minutu direnean, Elizate honetako udaleko osoko bilkura batzartu da, **alkate-udalburua den M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ** andrea buru izanik. Bazterrean ageri diren zinegotziak etorri dira, Udalbatzarra izatez eta eskubidez osatzen duten kideen legezko gehiengoa izanik, **idazkari nagusia den CHIARA CAMARÓN PACHECO** andrearen laguntzarekin, osoko bilkura arrunta egiteko helburuarekin, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1. artikuluan ezarritako ondorioetarako, alkate-udalburu andrearen ekimenez deialdia jaso ondoren, lege horren 21.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Leioako Udalaren izaera organikoko eta herritarren parte-hartzerako Araudiak (182. BAOn, 2013ko irailaren 23koan, argitaratua, eta urte horretako ekainaren 27ko osoko bilkuran onetsia) 22. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako orduan, lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldiari hasiera eman dio eta, jarraian, ohiko bilkura honen gai zerrendari heldu zaio.

## I.- ERABAKITZEKOAK

### 1.- HONAKO AKTA HAUEK ONESTEA:

- 2018-02-19ko ezohiko osoko bilkura.
- 2018-02-22ko ohiko osoko bilkura.

Adierazi da aipatutako bilkuren aktak onartzeke daudela, eta Udalbatzari eman zaizkio onar ditzan.

## UDALBATZAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, bilerara bertaratutako kide guztiek aho batez onetsita, 2018ko otsailaren 19an (ezohikoa) eta otsailaren 22an (ohikoa) egindako osoko bilkuren aktak onetsi ditu, eta ez da horiei buruzko oharrik egin.

### **2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ARAUDIAN ALDAKETA BAT EGITEKO PROPOSAMENA:**

Osoko Bilkurari aurkeztu zaio, onetsi dezan, 2018ko martxoaren 14an Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio Batzordean emandako 29. irizpenaren proposamena, eta egiaztatzea espedientearen jasota geratu da (ESP.: 2018/AI/11/095):

## UDALBATZAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozkatu da, eta Osoko Bilkurak, antolamendu juridikoan eta zehazki Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.4. artikuluko 2. atalean eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 79. artikuluetan ezarritako eskumenak erabiliz, bertaratutako hogeitaz zinegotziek aho batez alde bozkatu dutelarik –Naiara Gorienea Zilloniz andrearen kasuan Aritz Tellitu Zabala jaunak izan du bozkatzeko eskumena, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.6. artikuluan ezarritakoa aplikatuz–, hauxe erabaki du:

Lehenengo.- Hasiera batean onestea Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Araudiaren 16.3. artikulua aldatzea, honako hau, hain zuzen ere:

### **“16.3- Zerbitzuaren ezaugarriak**

- (...)
- *Arrisku-egoeran dauden pertsonak - 8 ordu urteko*
  - *I. mendekotasun-gradua duten pertsonak - 12 ordu urteko*
  - *II. mendekotasun-gradua duten pertsonak - 20 ordu urteko*
  - *III. mendekotasun-gradua duten pertsonak - 30 ordu urteko*

*Intentsitate horiek urtero aztertuko dira alkatetzaren dekretuaren bitartez.*  
(...)

Bigarrena.- Jendaurrean erakusteko eta interesdunei entzunaldia eskaintzeko aldia irekitzea erabakitzea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 53. artikuluan ezarritakoa betez, eta gutxienez hogeita hamar eguneko epea ezartzea erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Horri buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren gardentasun-atarian argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordura arte behin-behinekoa den erabakia behin betikotzat joko da, eta erabakia behin betiko bihurtzea eta ordenantza

aldatzeko testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira. Aldaketa 15 egun balioduneko epean sartuko da indarrean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Alegaziorik aurkezten ez bada, ebatzi egingo da eta, hala badagokio, behin betiko onetsi eta argitaratuko da.

## **II.- OSOKO BILKURAK UDAL-GOBERNUKO KUDEAKETARI EGINDAKO KONTROLA ETA JARRAIPENA**

### **3.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO EBAZPENAK, 2018-02-15ETIK 2018-03-14RA BITARTEAN:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan xedatutakoari erreparatuz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eta Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Araudiaren 42. artikulua (azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsia) emandako idazketan, osoko bilkurako espedientean honako hau jasota dago, azter dadin: idazpuruan aipatutako epean alkatetzak emandako dekretuen kopia, dagokion tokian ondoren artxibatzeke aukera alde batera utzi gabe.

Osoko bilkura **jakitun geratu da.**

### **4.- PREMIAZKO MOZIOAK**

Ez da premiazko moziorik aurkeztu zati honetan.

### **5.- GALDERAK ETA ESKAERAK**

Eta, arratsaldeko zortziak eta zortzi minutu direnean, alkate-udalburuak amaitutzat eman du ekitaldia, eta Idazkaritza honi agindu dio dagokion akta egiteko; akta adostutako baldintzetan onetsi da, eta nik, idazkari nagusiak, hori ziurtatu dut.

O.E.  
IDAZKARI NAGUSIA